

Erabakia, 2024ko apirilaren 29koa, Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren zuzendariarena. Honen bidez argitaratzen da ikastegiaren Zurezko Egiturak, Eraikuntza eta Diseinuko Masterraren 2024-2025 ikasturteko matrikula beken deialdia, eskolako egresatuentzat.

1. Deialdia

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Arkitektura Goi Eskola Teknikoak (AGET-UPV/EHU, aurrerantzean) Zurezko Egiturak, Eraikuntza eta Diseinuko Masterra eskaintzen du. AGET-UPV/EHUrentzat, estrategikoa da Arkitekturako ikasle ohiek master honetan parte hartzea, beren prestakuntza osatzeko eta espezializazioa sustatzeko. Deialdi honen bidez, murriztu egin nahi zaie titulu horren matrikula AGET-UPV/EHU ikasketak amaitu dituzten ikasleei.

2. Onuradunak

Beka hauek dira AGET-UPV/EHUko ikasle egresatuentzat.

3. Erabaki organoa

Ikastegiko zuzendaritzak proposamenak balioztatuko ditu, kontuan izanik 4. puntuari aipatutako irizpideak.

4. Adjudikazio irizpideak

Irizpide orokor gisa, bi kategoriatan emango zaie lehentasuna eskatzaileei:

1. Arkitekturaren Oinarrietako graduan edo aurreko ikasketa planetako titulu baliokidean espediente akademiko onenak dituzten ikasleak. Eskabideak aipatutako espedientearen batezbesteko kalifikazioaren arabera ordenatuko dira.
2. Arkitekturako Unibertsitate Masterra edo titulazio baliokidea ikasi duten ikasleen artean, bere Master Amaierako Lanean (MAL) edo Ikasketa Bukaerako Proiektuan (IBP, aurreko ikasketa planetan) zurezko egitura duen arkitektura-proiektu bat garatu duten ikasleak. Eskabideak Arkitekturako Unibertsitate Masterrean edo Ikasketa Bukaerako Proiektuan izandako kalifikazioaren arabera sailkatuko dira, kalifikazio onenak lehenetsiz.

Itxaron zerrendak osatuko dira bi kategoriatan.

Berdinketaren kasutan titulazioaren egituretako ikasgaien kalifikazioak balioztatuko dira.

5. Zenbatekoa eta gauzatzeko modua

2.000 euroko 4 beka eskaintzen dira Zurezko Egitura, Eraikuntza eta Diseinu masterraren matrikulatasak murrizteko.

Bi beka esleituko zaizkie Gradu edo baliokidea den titulazioaren batezbesteko kalifikazioaren bidez sartzan diren eskatzaileei eta beste bi beka MALaren edo IBPrekin kalifikazioaren bidez sartzan diren ikasleei. Bekaren bat esleitu gabe geratzekotan eskatzaile gutxiengatik edo bekari uko egiteagatik, beka hori itxaron zerrendan dagoen hurrengo eskatzaileari esleituko zaio. Eskatzaileak bi kategorien bidez parte har dezakete. Bi kategoriatan posizio berdinean kokatuta geratuz gero, Gradu edo baliokidea den titulazioaren arabeko kategoriako beka esleituko zaio (1. Katgoria).

Bekaren zenbatekoa ezin izango da metatu beste deialdi batzuetatik edo finantzaketa publikoko iturrietatik graduondokoen matrikulei ezarritako beste murrizketa batzuekin. Beka jaso duen ikasleak

beste laguntza publiko batzuk jasotzen baditu, bekaren zenbatekoa txikitu egingo da laguntza horien kopuru berean.

6. Eskariak aurkezteko epea eta tokia

Eskaerak aurkeztu ahal izango dira deialdi hau masterraren web orrian (<http://mastermadera.com/albisteak/>) argitaratzen den egunetik hasita, **2024ko uztailaren 15era arte**, biak barne, posta elektronikoko bat helbide honetara bidaliz: j.rico@ehu.eus. Bertan eskatzailearen izen-abizenak, NAN zenbakia, telefono zenbakia eta kontakturako posta elektronikokoaren helbidea.

Eskaerak sailkatu ondoren, adjudikaziodunen zerrenda argitaratuko du ikastegiak, eta beste eskatzaileak itxaron zerrendan sartuko dira.

7. Aurkeztu beharreko informazioa

Ikastegiak kalkulatu du Arkitekturaren Oinarrietako graduan edo aurreko ikasketa planetako ikasgaien batez besteko aritmetikoa, aintzat hartuta ikasketa espediente pertsonala.

Espediente hori ez du entregatuko eskatzaileak, ofizioz aurkeztuko baitu AGET-UPV/EHUren Ikasleen idazkaritzak. Arkitekturako Unibertsitate Masterreko kalifikazioa eskatzaileak berak aurkeztuko du bakarrik graduondoko hori beste unibertsitate batekoa izatekotan.

8. Adjudikazioa

AGET-UPV/EHUK argitaratuko du adjudikaziodunen eta itxaron zerrendan daudenen behin-behineko erabakia, 10 egun naturaleko epean, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita.

Banan-banan jakinaraziko zaie erabakia eskatzaileei, eskaeran eman duten helbide elektronikokoaren bidez.

Laguntzak adjudikatuko dira AGET-UPV/EHUko zuzendariaren erabaki bidez. Ebaki horrek onartuko ditu beka jasoko duten ikasleen zerrenda, jasoko ez dutenena eta baita ordezkoena ere.

Zuzendariaren erabakiaren aurka, errekurtsio hauek aurkez daitezke:

- a) Nahi izanez gero, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124.. artikulua baimentzen duen berraztertze errekurtsioa, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, UPV/EHUko errektorearen aurrean. Ezetsizat joko da isiltasun negatiboagatik, errekurtsioa jarri zenetik hilabete igaro eta haren berariazko ebazpena jakinarazi ez bada.
- b) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa, bi hilabeteko epean, erabakiaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

9. Onuradunen araubidea

Dirulaguntza hau jasoko duten ikasleek konpromisoa hartuko dute masterraren ikasturte osoa egiteko. Konpromiso hori betetzen ez duenak onuradun izateari utziko dio, galdu egingo du laguntza eta matrikulatik deskontatu zaizkion kopuruak ordaindu beharko ditu.

10. Deialdi honen aurkako errekurtsioa

Deialdi honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke errektoreari, hilabeteko epean, deialdia 6. puntu adierazitako webgunean argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela,

zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, modu berean kontatzen hasita.

Donostia, 2024ko apirilaren 29a

**Jon Andoni Begiristain Mitxelena
AGETko zuzendaria**